

# URREZKO DUNA

MIREN AGUR MEABE

MARRAZKIAK: IRRIMARRA



erein **AUSKAZO**

# URREZKO DUNA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2025eko ekainean*

Azala eta liburuaren diseinua:

A. Beltza | Erein

Maketazioa:

A. Beltza | Erein

Azala eta barruko irudiak:  
irrimarra (Karmele Gorroño)

© Miren Agur Meabe

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-053-7

L.G.: D 530-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzuzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)

[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

MIREN AGUR MEABE

# URREZKO DUNA

Marrazkiak: irrimarra

erein **AUSKA** 

# mirenagurmeabe

idazlea



Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962). Haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat idazten dut, bai narrazioa bai poesia. Niretzat, idaztea eta izatea gauza bera da. Honako hauek dira nire lanetako batzuk; *Errepidea* (2010), *Itsasoaren Atea* (2021), *Hiruretatik lauretara* (2025) edota *Katta* bilduma. Sari asko jaso ditut, baina garrantzitsuena, irakurleen estimazioa.

# karmelegorroño

marrazkilaria



Karmele Gorroño (Galdakao, 1987). Arte Ederretan lizentziatua, EHUUn. 2014tik hona ilustratzaile lanetan aritu naiz, betiere «irrimarra» izenpean, hasieran taldean eta gero bakarka.

Urte hauetan zehar hainbat proiektu garatu ditut, haurrentzako eta helduentzako album ilustratutak, kartelak, muralak, egunkarietarako ilustrazioak edo eskola agendak... besteak beste.

Kolore guzti-guztiak atsegin ditut, baita oraindik ezagutzen ez ditudanak ere. Horregatik, nire irudiak koloretzatzea izugarri gustatzen zait, koloreek alaitzen nautelako, eta, batez ere, zu alaitzea nahiko nukeelako.

# 1

## Aurrera, Pelot!

Kanpinera heldu garenean, eszenatoki bat muntatzen ari ziren igerileku ondoan. Kartelak ere baziren zuhaitzetan itsatsita.

—Zer ipintzen du?

Badakit irakurtzen, baina ez frantsesez.

—«Larunbatean, mozorro-jaia».

—Gaur da larunbata!

Aitak purrustada bat egin du:

—Lasaitasun bila etorri gara ba...

—Nola mozorrotuko gara? —ekin diot nik neureari—. Ez dugu ezer ekarri.

—Pentsatuko dugu zerbait —erantzun dit amak.

Eta aitak, sorbaldak goratuta:

—Bai horixe, zuek sobera duzue irudimena.

Lehen aldiz gatoz hona, *La dune d'or* kanpinera. Gustatu zait tokia, lurra pinu-orratzez estalita dagoe-lako eta, parez pare, hondartza amaigabe bat dugu-lako. Hara iristeko, bidetxo bat hartu behar omen da dunen artean.

Etxe osoa sartu dugu autoan eta orain, hustu egin behar. Horretan ari gara gurasoak eta hirurok. Pelot, berriz, hara eta hona dabil, urduri.

—Urtxintxaren bat-edo sumatuko zuen —esan du aitak.

Eskerrak ez den txakur zaunkaria. Arazo bat dauka eztarrian eta, zaunkaka hasten denean, moto xahar bat ematen du, martxan ezin jarrita.

Gure bungalowa pieza biko da, bata gurasoen logela eta bestea sukalde-salatxoa. Nik sofan lo egingo dut, eta Pello tek nire oinetan.

—Lixto! Nire gauzak antolatuta! —bota dut laster, irrikaz bainago buelta bat emateko, ea zer edo zer interesgarria topatzen dudan inguruetan.

—Itxaron pixka batean, Mara... Lagundu hamaka lotzen.

Udan, aitak eta amak hamakan egiten dute siesta, batzuetan elkarrekin eta beste batzuetan banaka.



Kontua da hamaka koloretsua arbolatik arbolara zintzilikatu eta gero, letxuga garbitzen ipini nautela.

Azkenean, bazkalostera arte ezin izan dut hartu bizikleta.

—Aurrera, Pellot! —deitu diot gure txakurrari.

Alferrontzi halakoak ez du zirkinik egin: berak ere siesta egin nahi luke hamakaren itzalpean. Bere gomazko saltxitxa eskegi behar izan dut bizikletaren eskutokian. Orduan bai, etorri da trostan nire atzetik.

Kostatzen zaio koitaduari korrika egitea... Izan ere, hiru hanka baino ez ditu: laugarrena moztuta zeukan txakurtegian jaso genuenean. Begi bat ere falta zaio, baina apenas igartzen zaion. Lagun paregabea dut: oso gauza sakonak irakasten dizkit begirada hutsarekin.

## 2

### Katamaloak egiten

Kanpina alderik alde zeharkatuta, umeen txokoa aurkitu dugu. Umeen txokoa zela jakin dut «CLUB» jartzzen duelako, eta aurrean txirrista eta zabuak daudelako. Neska gazte bat dago atean, kamisetan plaka bat duena: Katixa. Seguru begiralea dela, denbora-pasak eta abar antolatzeko arduraduna.

—Ongi etorri! —agurtu gaitu—. Nahi al duzue sartu? Eskulanak egiten ari gara.

Guk, baietz.

Hainbat ume daude mahai baten bueltan, kartulinazko maskarak egiten. Katixak txantilo batzuk eskaini dizkit eta balearena aukeratu dut.

Balea da itsasoko nire animaliarik gogokoena: ederra da, baina sendoa; handia, baina arina; eta murgilduta

bizi arren, azalera ateratzen da tarteka, oxigeno bila. Nik ere behar izaten dut hori, birrikak airez bete; beste era batera esanda, neure kasa ibili.

—Bai txakur zatarra zurea! —esan du ezpatarraina margotzen ari den neska batek.

Momentuan ez zait erantzunik bururatu eta ko-rapiloa egin zait eztarran. Pelloti ere, sentibera denez, malko batek ihes egin dio, baina segituan egin dit keinu begitxoarekin, zera esanez bezala: «Benetako begiak bihotzarenak dira». Eskerrik asko.

Nire alboan jesarrita dagoen mutikoak esan dit, isilka:

—Ez egin kasurik... Zirikatzea Bibianeren espe-zialitatea da.

Mutikoaren katamaloari begiratu diot zeharka: itsas kurkuilua. Seinale ona: jakina da kurkuiluek lasaita-suna ematen digutela belarrira arrimatzen ditugunean.

Beste mutil batek marmoka bat marrazten dihardu.

Maisuak behin esan zidan nire burua analitiko-a dela; alegia, nigan pisu handiagoa duela arrazoiak sentimenduek baino. Ados nago: ezaugarri hori oina-rizkoa da edozein detektiberentzat.



Beraz, isilik aritu naiz neure balea lantzen. Eta halaxe etorri zait gauerako ideia: kamiseta marraduna, praka motzak, zapia buruan, amaren belarritako biribil horietako bat, eta erraz-erraz bihurtuko naiz pirata.

—Har dezaket kartulina beltz zati bat? —galdetu diot Katixari.

Partxe pare bat egingo dut, bata niretzat eta beste Pellotentzat.

Alde egin baino lehen, Kurkuiluk bere izena esan dit:

—Ni Battitta naiz, Batti.

—Ni, Mara.

Baxu-baxu esan diot. Ezpatarrain kapaz litzateke burla egiteko Balea deituta.

## Aurkibidea

1. Aurrera, Pellot!	9
2. Katamaloak egiten	13
3. Non dago amaren eraztuna?	16
4. Maskor eta aizto	21
5. Hiru pirata eta erdi	25
6. Petardo malapartatuagorik!	29
7. Ezezagun Iluna	33
8. Marinexa Kakottipiren kondaira	37
9. «La Basque»	41
10. Naufragioa	47
11. Moilaren beste aldera	51
12. Baleen kakari buruzkoak	55
13. Txabola bat pinudian	59
14. Sugeari ihesi	63
15. Hil ala biziko borroka	67
16. Itzuliko zara berriz?	71